



Martin Tovalek dio Felipe Gonzalez ez dela ezinbestekoa alderdi sozialistan / 15



Bagdadekin autonomi akordio «onuragarria» lortuko dutela iragarri du Barzani kurduak / 18



Roger Idiarten 'Xalbador' pastoralara plazaratuko dute abuztuan larraindarrek / 23

Egunkaria

Asteazkena, 1991ko ekainak 26 / II. urtea / 171. zenbakia / Salneurria: 75 pta. / 4,5 libera

GIZARTEA

Drogazaleak gero eta gazteagoak

Euskal Herriko drogazaleen batezbesteko adina 24-25 urtekoa den arren, gazteenak gero eta gazteagoak dira: 14-15 urtekoak ugariak dira. Drogaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatuko da gaur. / 9

Dominguez-Amedo GALEkoak zirela esan zion lagun min bati Balsategik

Jose Amedo eta Michel Dominguez poliziak GAL taldekoak zirela ziurtatu zion Maria Angeles Balsategik Maria Jesus Garcia Urbina bere lagun minari, azken honek Madrileko Auzitegi Nazionalan atzo adierazi zuenez. Garcia Goenaren hilketan erabili zuten bonba Inmaculada Gomezen etxera eraman zuela Amedok esan ziola Balsategik deklaratu zuen ere lekukoak. / 6

HBrekin hitzegitea baztertua dute PSN-PSOE eta EAK

Nafarroako Gobernurako egitasmoa zehazteko lehenengo bilera ofizialean, Herri Batasunarekin negoziatzea ez zuten aintzakotzat hartu PSN-PSOEko eta Eusko Alkartasunako batzorde negoziatzaileek. Atzoko bilerak aurretik ezagunak ziren jarre-
rak ofizialtzeko balio izan zuen, PSN-PSOEko Aladino Colin eta EAKo Fermin Ziarriz bozeramaleek esan zuten. / 5

Iberdrola onetsi dute Iberdueroko akziodunek

Iberdueroko akziodun ia guztiek Hidrola eta euskal konpainiaren bat egitearen aldeko botoa eman zuten atzo Bilbon egindako Batzar Nagusian. Bategitearen eraginez, enpresaren partaidetzek balio handiagoa izango dutela esan zuen Gomez de Pablos presidentea. Garrido kontseilariak ia zko ekitaldia «oso positibotzat» jo eta aurtengoa «hobe» izango dela esan zuen. / 13

Independentzia aldarrikatu dute Esloveniak eta Kroaziak

Erabakia indarrean ezarriko dute gaur nazioartean onartu ez arren

Eslovenia eta Kroaziako legebiltzarrek independentzia aldarrikatu zuten atzo ofizialki, neurria gaur «indarrean ezartzeko». Bi errepublikak ez dira Jugoslaviatik 'banantzen', 'bereizten' baizik, aldarrikapenak zehaztu dutenez. Jugoslavia utzi beharrean, gaurko Federakundea baztertuz Konfederakunde berri baterako urrats bezala uler daiteke, ikuspuntu batetik, aldarrikapena.

Neurriaren edukin sinbolikoaz gain, ez dirudi berehalako ondorio ikusgarriak eragingo dutenik «independentzia» aldarrikapenak. Ez Kroaziak eta ez Esloveniak ez dute moneta propio edo pasaporterik, eta Armadarik ere ez, milizia errepublikarrak kenduta. Nazioarteko komunitatean inork ere ez die onartuko aldarrikapena.

Ekonomikoki ere zailtasunak izango dituzte Eslovenia eta Kroaziak, nahiz eta Jugoslaviako maila ertainetik gora bizi diren herri hauek. Beste errepublikaren kalterako ere izango da seguru asko. / 16-17



Kroaziako banderak eta Franjo Tudjam lehendakariaren irudiak erruz ari dira saltzen Zagreb hiriburuan. SRDJAN IJIC

Pradera, Bizkaiko diputatu nagusi berriro

Jose Alberto Pradera jeltzalea Bizkaiko diputatu nagusi aukeratu dute beste lau urterako. Bizkaiko Batzar Nagusiek atzo Gernikan egindako saioan, EAJko hautagaiak bere alderdiko eta PSE-PSOEko batzarkideen 33 botoak jaso zituen, gehiengo nagusia lehenengo bozketa erronda lortuz. EA, EE eta PPkoek boto zuria eman zuten, eta HBkoek, berriz, baliorik gabea, paperean «ez» hitza idatzi bait zuten.

Bere egitasmoaren aurkezpenean, Ajuria Eneako itunari Diputazioak «laguntza osoa» emango diola nabarmendu zuen Praderak. Zerga kopurua jaitsiko dituela ere aipatu zuen, eta euskararen alorrean, «orain arte bezala funtzionariak euskalduntzeko ahaleginekin» segiko duela. / 4



Gehiengo absolutua lortu zuen Praderak lehenengo bozketa errondan. JOSE SIMAL

BESTERIK

POLITIKA

Polizia baten autoan jarritako bonba indargabetu zuten Basaurin / 7

ESTATUA

Aljerian Frantziaren alde borrokatu zutenak eta bere familiarak arazoak sortzen ari dira / 15

SANPELAIOAK ZARAUTZEN / 12